IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

2017ko Lan-poltsak
Bolsas de Trabajo 2017

G. M. T. K.: Osasun Publikoa Eskala
C. S. F.: Escala Salud Pública

A EREDUA – MODELO A

2017-04-01 / 01-04-2017

Erakunde autonomiduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1 SEGÚN LA LEY ORGANICA 15/1999 DE PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL, SE ENTENDERA POR "DATOS DE CARÁCTER PERSONAL":

1a) Todo conjunto organizado de datos, cualquiera que fuere la forma o modalidad de su creación, almacenamiento, organización y acceso.
1b) Cualquier información que concierne a personas físicas identificadas o identificables.
1c) Todo tratamiento de datos personales de modo que la información que se obtenga no pueda asociarse a ninguna persona.
1d) Cualquier información que concierne a personas jurídicas identificadas o identificables.

2 EL PRINCIPIO DE IGUALDAD DE TRATO ENTRE MUJERES Y HOMBRES SUPONE:

2a) La tutela judicial efectiva para intervenir en los procesos civiles, sociales y contenciosos.
2b) El compromiso con la efectividad del derecho constitucional de igualdad entre mujeres y hombres.
2c) La erradicación de la violencia de género.
2d) La ausencia de toda discriminación, directa o indirecta, por razón de sexo.

3 EN LA DEFINICIÓN PROPUESTA POR LA OMS EN 1946, LA SALUD SE ENTIENDE:

3a) Únicamente como la mera ausencia de enfermedad o dolencia.
3b) Como responsabilidad del sistema sanitario.
3c) Como elemento que tiene un único origen.
3d) Como un estado de completo bienestar físico, mental y social.

4 LA EQUIDAD EN SALUD IMPLICA:

4a) Que todas las personas debieran tener las mismas oportunidades de alcanzar el grado máximo de salud.
4b) Asignar los recursos disponibles priorizando por orden de solicitud.
4c) Priorizar en las políticas sanitarias los problemas de salud que afectan a un número mayor de personas, sin tener en cuenta otros factores como, por ejemplo, las desigualdades sociales.
4d) Diseñar políticas orientadas a las personas con un buen nivel educativo, ya que serán más eficaces.

5 EN RELACIÓN A LOS DETERMINANTES SOCIALES DE LA SALUD:

5a) Entre ellos no se incluye el desempleo.
5b) Estos se definen como las condiciones sociales en las que las personas nacen, viven y se relacionan.
5c) La disponibilidad económica de las familias es uno de los menos importantes.
5d) Estos no explican las desigualdades en salud.

6 LAS PERSONAS CON MENOS INGRESOS, MENOR NIVEL EDUCATIVO O EN SITUACIÓN DE DESEMPLEO TIENDEN A:

6a) Vivir más.
6b) Tener mejor salud.
6c) Tener conductas individuales menos saludables (por ejemplo, fumar).
6d) Tener más oportunidades sociales.

1 IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEARI BURUZKO 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ZER DIRA "DATU PERTSONALAK"?

1a) Datuen multzo antolatu oro, edozein dela ere datu-multzo hori sortzeko, biltegiratzeko, antolatzeko edo horretara iristeko modua.
1b) Identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoen gaineko edozein informazio.
1c) Datu pertsonalen tratamendu oro, lortzen den informazioa pertsona batekin ez erlazionatzeko moduan egiten dena.
1d) Identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona juridikoen gaineko edozein informazio.

2 ZER DAKAR EMAKUMEAK ETA GIZONAK BERDIN TRATATZEKO PRINTZIPIOAK?

2a) Prozesu zibiletan, prozesu sozialetan eta auzi-prozesuetan esku hartzeko benetako babes judiziala.
2b) Konstituzioan jasota dagoen emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubidearen eraginkortasunarekiko konpromisoa.
2c) Genero-indarkeria errotik kentzea.
2d) Sexua dela-eta inolako diskriminaziorik ez egotea; ez zuzenean, ezta zeharka ere.

3 OSASUNAREN MUNDU-ERAKUNDEAK 1946AN PROPOSATUTAKO DEFINIZIOAREN ARABERA, ZER DA OSASUNA?

3a) Gaixotasun edo oinazerik eza; horixe bakarrik.
3b) Osasun-sistemaren erantzukizuna.
3c) Jatorri bakarra duen elementua.
3d) Erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera.

4 ZER ESAN NAHI DU “EKITATEA OSASUNEAN” KONTZEPTUAK?

4a) Pertsona guztiek beharko luketela ahalik eta osasun onena eskuratzeko aukera berdinak izan.
4b) Eskuragarri dauden baliabideak jartzea, eskaera-hurrenkera lehenetsita.
4c) Osasun-politiketan lehentasuna ematea pertsona-kopuru handienari eragiten dieten osasun-arazoei, kontuan hartu gabe beste faktore batzuk (gizarte-desberdintasunak, adibidez).
4d) Heziketa-maila ona duten pertsonei zuzendutako politikak diseinatzea, politika horiek eraginkorragoak izango baitira.

5 OSASUNAREN GIZARTE-MUGATZAILEAK:

5a) Langabezia ez da haietako bat.
5b) Jendearen jaiotzaren, bizitzaren eta harremanen testuinguruetan dauden gizarte-baldintzak dira.
5c) Familiek daukaten diru erabilgarria da garrantzi gutxiena dutenetako bat.
5d) Horiek ez dute esplikatzen osasun-desberdintasunen zergatia.

6 DIRU-SARRERA GUTXIEN DUTEN, HEZIKETA-MAILA TXIKIENA DAUKATEN EDO LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK:

6a) Gehiago bizitzen dira.
6b) Osasun hobea izaten dute.
6c) Hain osasungarriak ez diren jarrera indibidualak izaten dituzte (adibidez, erre egiten dute).
6d) Gizarte-aukera gehiago izaten dituzte.

7 EL MODELO DE DAHLGREN Y WHITEHEAD PARA EXPLICAR LOS DETERMINANTES EN SALUD Y CÓMO SE PRODUCEN LAS DESIGUALDADES, EXPLICA QUE:

7a) Las desigualdades en salud son el resultado de factores biológicos.
7b) Las desigualdades en salud son el resultado de las interacciones entre distintos niveles de condiciones causales desde el individuo hasta la comunidad.
7c) Las personas desfavorecidas tienen más facilidades para elegir un modo de vida más sano.
7d) El desempleo supone menos riesgo para la salud en personas desfavorecidas.

8 LA SALUD EN TODAS LAS POLÍTICAS:

8a) Supone asumir como metas de todo el gobierno la salud y la equidad en salud.
8b) Es una estrategia vertical centrada en las actividades de Osakidetza.
8c) No es una de las estrategias del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.
8d) Se centra en contemplar la salud exclusivamente desde la mejora del sistema asistencial.

9 LA SALUD PÚBLICA:

9a) Se centra en la atención a personas individuales.
9b) Se centra en prevenir, promover y proteger la salud de las personas mediante acciones dirigidas a la comunidad.
9c) Desarrolla sus actuaciones exclusivamente desde los centros de salud y hospitales.
9d) Se ocupa prioritariamente de la atención a emergencias.

10 EL EMPODERAMIENTO O CAPACITACIÓN DE LA CIUDADANÍA SUPONE:

10a) Suministrar a las personas mera información sobre sus necesidades y carencias en salud.
10b) Controlar la salud de las personas.
10c) Formar a las personas para que puedan elegir libremente lo que es mejor para su salud.
10d) Crear grupos de expertos que prioricen las necesidades de las personas.

11 IDENTIFICA ENTRE LAS SIGUIENTES UNA MEDIDA QUE ESTÉ EN CONTRA DEL PRINCIPIO "HACER FÁCILES LAS OPCIONES MÁS SANAS":

11a) Crear espacios libres de humo de tabaco (por ejemplo, prohibir fumar en bares, etc.).
11b) Construir carriles bici.
11c) Aumentar el número de plazas de aparcamiento en los núcleos urbanos.
11d) Crear una buena red de transporte público.

12 LAS REDES LOCALES DE SALUD:

12a) Permiten la participación de las asociaciones únicamente como receptoras de información.
12b) Se orientan a solucionar problemas de salud individuales.
12c) Permiten situar las acciones de salud en el escenario más cercano a la población.
12d) Se organizan jerárquicamente.

13 LOS ACTIVOS DE LA COMUNIDAD PARA LA SALUD SON:

13a) Personas que hacen mucho ejercicio físico.
13b) Riquezas de la comunidad que mejoran el bienestar a nivel individual, social o grupal.
13c) Recursos que no generan salud.
13d) Factores que disminuyen la capacidad de las personas para mantener su salud.

7 DAHLGREN-EK ETA WHITEHEAD-EK EREDU BAT DAUKATE OSASUN-DETERMINATZAILEAK ETA DESBERDINTASUNAK NOLA GERTATZEN DIREN AZALTZEKO. ZER ESPLIKATZEN DU EREDU HORREK?

7a) Osasun-desberdintasunak faktore biologikoen emaitza direla.
7b) Osasun-desberdintasunak kausen baldintzen maila desberdinen arteko interakzioen emaitza direla, banakotik hasita komunitatera arte.
7c) Egoera ahulean dauden pertsonek erraztasun handiagoak dituztela bizimodu osasungarriagoa aukeratzeko.
7d) Langabeziak osasunerako arrisku txikiagoa eragiten diela egoera ahulean dauden pertsonei.

8 OSASUNA POLITIKA GUZTIETAN.

8a) Horrek berekin dakar gobernu osoak xedetzat hartzea osasuna eta osasuneko ekitatea.
8b) Estrategia bertikal bat da, Osakidetzaren jardueretan oinarritzen dena.
8c) Ez da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren estrategietako bat.
8d) Osasunari soil-soilik asistentzia-sistemaren hobekuntzatik begiratzean oinarritzen da.

9 OSASUN PUBLIKOA:

9a) Banakako pertsonei arreta ematean oinarritzen da.
9b) Komunitateari zuzendutako ekintzen bidez, prebentzioan eta pertsonen osasuna sustatu eta babestean oinarritzen da.
9c) Osasun publikoak osasun-etxeetatik eta ospitaleetatik bakarrik egiten ditu jarduketak.
9d) Osasun publikoan, larrialdiei erantzuteak du lehentasuna.

10 HERRITARREN AHALDUNTZE EDO GAIKUNTZAK BEREKIN DAKAR:

10a) Pertsonei informazio hutsa ematea haien osasun-beharrizan eta -gabeziei buruz.
10b) Pertsonen osasuna kontrolatzea.
10c) Pertsonei prestakuntza ematea haien osasunarentzat onena dena libreki aukeratu ahal dezaten.
10d) Pertsonen beharrizanak lehenesten dituzten aditu-taldeak eratzea.

11 NEURRI HAUETAKO ZEIN DAGO "AUKERA OSASUNGARRIENAK ERRAZTU" IZENEKO PRINTZIPIOAREN AURKA?

11a) Tabako-kerik gabeko guneak sortzea (adibidez, tabernetan erretzea debekatzea, etab.)
11b) Bidegorriak eraikitzea.
11c) Aparkatzeko plaza gehiago jartzea hiriguneetan.
11d) Garraio publikoko sare on bat eratzea.

12 TOKIKO OSASUN-SAREAK:

12a) Elkarteei parte hartzen uzten diete, baina informazio-hartzaile gisa bakarrik.
12b) Osasun-arazo indibidualak konpontzera bideratzen dira.
12c) Osasun-ekintzak herritarrengandik ahalik eta hurbilen kokatzea ahalbidetzen dute.
12d) Hierarkikoki antolatzen dira.

13 KOMUNITATEAREN AKTIBOAK OSASUNERAKO. ZER DIRA?

13a) Ariketa fisiko asko egiten duten pertsonak.
13b) Komunitatearen aberastasunak, norberaren, taldearen edo gizartearen ongizatea hobetzen dutenak.
13c) Osasunik sortzen ez duten baliabideak.
13d) Pertsonek osasunari eusteko daukaten gaitasuna gutxitzen duten faktoreak.

14 LA PARTICIPACIÓN DE LA COMUNIDAD:

14a) Únicamente puede aplicarse en entornos sociales sin desigualdades.
14b) Es contraria al concepto de empoderamiento.
14c) Es frecuente en sociedades paternalistas.
14d) Supone la organización de la comunidad y la toma de conciencia colectiva.

15 ¿CUÁL DE LOS SIGUIENTES GÉRMENES SE ASOCIA CON UNA INTOXICACIÓN GRAVE TRAS CONSUMO DE CONSERVAS VEGETALES DE BAJA ACIDEZ, QUE NO HAYAN SUFRIDO EN SU ELABORACIÓN UN TRATAMIENTO TÉRMICO SUFICIENTE?

15a) Clostridium perfringens.
15b) Staphylococcus aureus.
15c) Clostridium botulinum.
15d) Bacillus cereus.

16 EN RELACIÓN A LAS "LIMITACIONES AL CONSUMO DE TABACO EN CUANTO QUE AFECTA A TERCERAS PERSONAS" ESTABLECIDAS EN LA LEY 1/2016 DE ATENCIÓN INTEGRAL DE ADICIONES Y DROGODEPENDENCIAS, ¿CUÁL DE LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES ES CORRECTA?

16a) Se permite fumar en centros comerciales, incluyendo grandes superficies y galerías, siempre que estos tengan una superficie superior a 2.000 m^2
16b) En los centros de educación primaria, se permite fumar únicamente en la sala del profesorado.
16c) Está prohibido fumar en parques infantiles y áreas o zonas de juego para la infancia que contengan equipamiento o acondicionamientos destinados específicamente para el juego y esparcimiento de menores debidamente acotados, incluso al aire libre .
16d) Se permite fumar en cualquier zona de un campo de fútbol, siempre que esta esté al aire libre.

17 LA EVALUACIÓN DE RIESGOS ES UNA METODOLOGÍA QUE:

17a) Se utiliza en estudios experimentales.
17b) Utiliza información sobre límites máximos de exposición en humanos obtenidos en estudios clínicos.
17c) Cuantifica la exposición solamente para efecto cáncer.
17d) Sirve como ayuda en la toma de decisiones a la hora de establecer límites de contaminantes.

18 RESPECTO A LA EVALUACIÓN DE RIESGOS CLÁSICA, ¿CUÁL DE LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES ES CIERTA?

18a) Se realiza en cuatro etapas: identificación del peligro, evaluación dosis/respuesta, evaluación de la exposición y caracterización del riesgo.
18b) Una de las fortalezas de la metodología es que no genera incertidumbres.
18c) Estima el número exacto de personas o eventos en salud que pueden producirse o evitarse como consecuencia de la puesta en marcha de un proyecto.
18d) Se utiliza solamente para evaluar riesgos en salud por exposición vía oral e inhalatoria.

14 PARTAIDETZA KOMUNITARIOA:

14a) Desberdintasunik gabeko gizarte-inguruneetan bakarrik aplika daiteke.
14b) Ahalduntze kontzeptuaren aurkakoa da.
14c) Ohikoa da gizarte paternalistetan.
14d) Komunitatea antolatzea eta kontzientzia kolektiboa izatea da.

15 GERMEN HAUETAKO ZEIN DAGO LOTUTA PRESTAKETAN TRATAMENDU TERMIKO NAHIKOA IZAN EZ DUTEN AZIDOTASUN BAXUKO LANDARE-KONTSERBAK KONTSUMITZEAGATIKO INTOXIKAZIO LARRIAREKIN?

15a) Clostridium perfringens-a.
15b) Staphylococcus aureus-a.
15c) Clostridium botulinum-a.
15d) Bacillus cereus-a.

16 ADIKZIOEN ETA DROGA-MENDEKOTASUNEN GAINEKO ARRETA INTEGRALARI BURUZKO 1/2016 LEGEAN ATAL HAU DAGO BESTEAK BESTE: "TABAKO-KONTSUMOA MUGATZEA, HIRUGARRENEI ERAGITEN DIEN NEURRIAN". HORREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?

16a) Erre daiteke merkataritza-guneetan, azalera handi eta galeriak barne, betiere 2.000 m^2-tik gorako azalera badaukate.
16b) Lehen hezkuntzako ikastetxeetan, irakasleentzako gelan bakarrik erre daiteke.
16c) Debekatuta dago haur-parkeetan eta haurrentzako jolas-toki edo eremuetan erretzea, berariaz adingabeen jolaserako eta olgetarako ekipamendua edo egokitzapenak dituztenean eta behar bezala mugarrituta daudenean; baita aire zabalean ere.
16d) Futbol-zelaietako edozein lekutan erre daiteke, betiere aire librean badago.

17 ARRISKUAK EBALUATZEKO METODOLOGIA.

17a) Azterlan esperimentaletan erabiltzen da.
17b) Azterlan klinikoetan lortutako gizakien gehieneko esposizio-mugei buruzko informazioa erabiltzen du metodologia horrek.
17c) Esposizioa kuantifikatzen du, baina minbizi-eraginarentzat bakarrik.
17d) Kutsatzaileak mugatzeko orduan erabakiak hartzeko laguntza gisa balio du.

18 ARRISKUEN EBALUAZIO KLASIKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA EGIA?

18a) Ebaluazioa lau etapatan egiten da: arriskua identifikatzea, dosiaren/erantzunaren ebaluazioa, esposizioaren ebaluazioa eta arriskuaren karakterizazioa.
18b) Ziurgabetasunik ez duela eragiten da metodologiaren indarguneetako bat.
18c) Proiektu bat martxan jartzearen ondorioz izan edo saihestu daitezkeen pertsonen edo osasun arloko ekitaldien kopuru zehatza zenbatesten du ebaluazioak.
18d) Aho bidez edo inhalazioz izandako esposizioak eragindako osasun-arriskuak ebaluatzeko bakarrik erabiltzen da ebaluazioa.

19 DE LOS PARÁMETROS INDICADORES DEL TRATAMIENTO QUE SE INDICAN EN LA NORMATIVA SOBRE CALIDAD DE AGUAS DE CONSUMO, DESTACA POR SU IMPORTANCIA SANITARIA:

19a) La acrilamida.
19b) La turbidez.
19c) El fluoruro.
19d) Escherichia coli.

20 EL CLORO QUE SE UTILIZA EN EL TRATAMIENTO DEL AGUA, PUEDE REACCIONAR CON SUSTANCIAS NATURALES PRESENTES EN LA MISMA (ÁCIDOS HÚMICOS) PARA DAR LUGAR A PRODUCTOS TÓXICOS. ENTRE ELLOS LOS MÁS ABUNDANTES SON:

20a) Dioxinas.
20b) Trihalometanos.
20c) Microcistinas.
20d) Cloruros de vinilo.

21 SEGÚN LA OMS LA FORMA MÁS EFICAZ DE GARANTIZAR SISTEMÁTICAMENTE LA SEGURIDAD DE UN SISTEMA DE ABASTECIMIENTO DE AGUA DE CONSUMO ES:

21a) Realizar analíticas con alta frecuencia en los grifos del consumidor, donde se evalúa la calidad del agua finalmente.
21b) Aplicar la evaluación y gestión de los riesgos que abarque todas las etapas del sistema de abastecimiento.
21c) Realizar analíticas completas en la salida de la planta de tratamiento para asegurar la calidad del agua que entra en el depósito.
21d) Analizar un mayor número de parámetros ya que cada vez son más los contaminantes emergentes.

22 ADEMÁS DE LOS PATÓGENOS QUE TRADICIONALMENTE SE DETERMINAN EN EL AGUA DE CONSUMO, EN ALGUNOS CASOS SE PRODUCEN BROTES IMPORTANTES POR LA PRESENCIA DE MICROORGANISMOS RESISTENTES AL CLORO COMO:

22a) Escherichia coli.
22b) Enterococo.
22c) Clostridium perfringens.
22d) Cryptosporidium.

23 SOBRE LOS PLANES SANITARIOS DEL AGUA, LA OMS INDICA QUE:

23a) Su elaboración y aplicación es responsabilidad de la autoridad sanitaria.
23b) No es necesario realizar una evaluación particularizada de cada abastecimiento ya que existen estándares a considerar.
23c) Puede ser más eficaz invertir en medidas de prevención en la cuenca de captación que en grandes infraestructuras de tratamiento.
23d) Ninguna de las anteriores es cierta.

19 KONTSUMO PUBLIKOKO UREN KALITATEARI BURUZKO ARAUTEGIAN TRATAMENDUA ADIERAZTEN DUTEN PARAMETROEN ARTETIK ZEIN NABARMENTZEN DA DAUKAN GARRANTZI SANITARIOARENGATIK?

19a) Akrilamida.
19b) Uhertasuna.
19c) Fluoruroa.
19d) Escherichia coli-a.

20 URA TRATATZEKO ERABILTZEN DEN KLOROAK ERREAKZIONATU EGIN DEZAKE URETAN BERTAN DAUDEN SUBSTANTZIA NATURALEKIN (AZIDO HUMIKOEKIN), ETA, HORREN ERAGINEZ, PRODUKTU TOXIKOAK SOR DAITEZKE. ZEIN DIRA UGARIENAK?

20a) Dioxinak.
20b) Trihalometanoak.
20c) Mikrozistinak.
20d) Binil kloruroak.

21 OME-REN ARABERA, ZEIN DA KONTSUMOKO URA HORNITZEKO SISTEMA BATEN SEGURTASUNA SISTEMATIKOKI BERMATZEKO MODURIK ERAGINKORRENA?

21a) Oso maiz egitea analisiak kontsumitzailearen txorrotetan, uraren kalitatea azkenean haietan ebaluatzen baita.
21b) Horniketa-sistemaren etapa guztiak hartzen dituen arriskuen ebaluazio eta kudeaketa aplikatzea.
21c) Tratamendu-plantaren irteeran analisi osoak egitea, biltegian sartzen den uraren kalitatea ziurtatzeko.
21d) Parametro-kopuru handiagoa analizatzea, gero eta kutsatzaile gehiago sortzen ari baitira.

22 KONTSUMOKO URETAN PATOGENOAK EGON OHI DIRA, BAINA KASU BATZUETAN, HORREZ GAIN, AGERRALDI (BROTE) GARRANTZITSUAK IZATEN DIRA, KLOROAREKIKO ERRESISTENTEAK DIREN MIKROORGANISMOAK AZALTZEN DIRELAKO. ZER MIKROORGANISMO DIRA HORIEK?

22a) Escherichia coli-ak.
22b) Enterokoko-ak.
22c) Clostridium perfringens-ak.
22d) Cryptosporidium-ak.

23 ZER DIO OME-K URAREN OSASUN-PLANEI BURUZ?

23a) Osasun-agintaritzari dagokiola halakoak egin eta aplikatzeko erantzukizuna.
23b) Ez dela beharrezkoa hornidura bakoitzaren ebaluazio banakatua egitea, kontuan hartu beharreko estandarrak daudelako.
23c) Eraginkorragoa izan daitekeela ur-bilketaren arroko prebentzio-neurrietan inbertitzea ur-tratamenduko azpiegitura handietan inbertitzea baino.
23d) Aurreko erantzun bakar bat ere ez da egia.

24 EL DECRETO 178/2002 POR EL QUE SE REGULA EL SISTEMA DE CONTROL, VIGILANCIA E INFORMACIÓN DE LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE CONSUMO PÚBLICO, ESTABLECE SOBRE LAS UNIDADES DE CONTROL Y VIGILANCIA (UCV) QUE:

24a) Solamente los abastecimientos que abastecen a más de 1000 habitantes deberán disponer de una UCV.
24b) Los programas anuales de control y vigilancia del abastecimiento que elaboran las UCVs deberán ser evaluados por el centro comarcal de salud pública.
24c) Solamente los abastecimientos que abastecen a más de 5000 habitantes deberán disponer de una UCV.
24d) La autorización para actuar como UCV en un abastecimiento será concedida por los ayuntamientos.

25 RESPECTO AL SISTEMA DE INFORMACIÓN DE LAS AGUAS DE CONSUMO DE LA CAPV (EKUIS) ¿CUÁL DE LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES ES CIERTA?

25a) Recoge solamente información de los resultados de los análisis realizados por las UCVs.
25b) Todos los miembros de la red son responsables de la información que contiene, cada uno dentro de sus competencias.
25c) Los centros comarcales de salud pública son los responsables de toda la información que contiene.
25d) La ciudadanía no tiene acceso a la información contenida en EKUIS.

26 LA NORMATIVA SOBRE LA GESTIÓN DE LA CALIDAD DEL AGUA DE BAÑO ESTABLECE PARA EL CONTROL DE CALIDAD DEL AGUA QUE:

26a) Cuando el perfil de las aguas de baño muestre propensión a la proliferación de cianobacterias siempre se prohibirá el baño.
26b) Cuando la autoridad sanitaria lo considere, se podrán tomar al menos 3 muestras por temporada.
26c) Se controlarán al menos Enterococos intestinales y enterovirus.
26d) Se controlarán al menos Enterococos intestinales y Escherichia coli.

27 EL REAL DECRETO 742/2013, POR EL QUE SE ESTABLECEN LOS CRITERIOS TÉCNICO-SANITARIOS DE LAS PISCINAS, ESTABLECE QUE EN EL AIRE DE LAS PISCINAS CUBIERTAS SE CONTROLARÁ/N ENTRE OTROS:

27a) CO_2
27b) Compuestos orgánicos volátiles.
27c) Cloro.
27d) Oxigeno.

28 LOS ESTUDIOS EUROPEOS MÁS RECIENTES QUE RELACIONAN CONTAMINACIÓN ATMOSFÉRICA Y EFECTOS ADVERSOS EN SALUD, HAN PUESTO DE MANIFIESTO QUE:

28a) La exposición a corto plazo a partículas PM 2,5 es una de las mayores amenazas para la salud.
28b) La exposición a corto plazo a partículas PM 5 es una de las mayores amenazas para la salud.
28c) La exposición a largo plazo a partículas PM 2,5 es una de las mayores amenazas para la salud.
28d) La exposición a largo plazo a partículas PM 5 es una de las mayores amenazas para la salud.

24 EDATEKO URAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ETA ZAINTZEKO NAHIZ HORRI GUZTIARI BURUZ INFORMATZEKO SISTEMA ARAUTZEN DUEN 178/2002 DEKRETUAK ZER EZARTZEN DU KONTROL- ETA ZAINTZA-UNITATEEI BURUZ?

24a) 1.000 biztanle baino gehiago hornitzen dituzten hornikuntzek bakarrik eduki behar dutela kontrol- eta zaintza-unitate bat.
24b) Osasun publikoko eskualdeko zentroak ebaluatu beharko dituela kontrol- eta zaintza-unitateek horniketa kontrolatzeko eta zaintzeko urtero egiten dituzten programak.
24c) 5.000 biztanle baino gehiago hornitzen dituzten hornikuntzek bakarrik eduki behar dutela kontrol- eta zaintza-unitate bat.
24d) Udalek emango dutela hornikuntzetan kontrol- eta zaintza-unitate gisa jarduteko baimena.

25 EAE-KO KONTSUMOKO UREN INFORMAZIO-SISTEMARI DAGOKIONEZ (EKUIS), EGIAZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA EGIA?

25a) Kontrol- eta zaintza-unitateek egindako analisien emaitzei buruzko informazioa besterik ez du jasotzen.
25b) Sareko kide guztiak dira sistema horretako informazioaren arduradunak, bakoitza bere eskumenen barruan.
25c) Osasun publikoko eskualdeko zentroak dira sistema horretako informazio guztiaren arduradunak.
25d) Herritarrek ez daukate EKUISeko informaziorako irispiderik.

26 BAINATZEKO URAREN KALITATEA KUDEATZEARI BURUZKO ARAUAK ZER EZARTZEN DU URAREN KALITATEAREN KONTROLARI DAGOKIONEZ?

26a) Bainatzeko uren profilak zianobakterioak ugaritzeko joera erakusten duenean, beti debekatuko dela bainua hartzea.
26b) Osasun-agintaritzak beharrezkotzat jotzen duenean, gutxienez 3 lagin hartu ahal izango direla denboraldiko.
26c) Gutxienez hesteetako esterokokoak eta enterobirusak kontrolatuko direla.
26d) Gutxienez hesteetako esterokokoak eta escherichia coli-ak kontrolatuko direla.

27 IGERILEKUEN IRIZPIDE TEKNIKO-SANITARIOAK EZARTZEN DITUEN 742/2013 ERREGE-DEKRETUAK EZARTZEN DU IGERILEKU ITXIEN AIREAN HAU KONTROLATUKO DELA BESTEAK BESTE:

27a) CO_2-a
27b) Konposatu organiko lurrunkorrak.
27c) Kloroa.
24d) Oxigenoa.

28 ZER JARRI DUTE AGERIAN AIREAREN KUTSADURA OSASUNARENTZAKO ONDORIO KALTEGARRIEKIN LOTZEN DUTEN EUROPAKO IKERKETA BERRIENEK?

28a) Epe laburrez PM 2,5 partikulekin kontaktuan egotea dela osasunarentzako mehatxurik handienetako bat.
28b) Epe laburrez PM 5 partikulekin kontaktuan egotea dela osasunarentzako mehatxurik handienetako bat.
28c) Epe luzez PM 2,5 partikulekin kontaktuan egotea dela osasunarentzako mehatxurik handienetako bat.
28d) Epe luzez PM 5 partikulekin kontaktuan egotea dela osasunarentzako mehatxurik handienetako bat.

29 SOBRE EL REGLAMENTO (CE) Nº 1907/2006 (REACH) RELATIVO AL REGISTRO, EVALUACIÓN, AUTORIZACIÓN Y RESTRICCIÓN DE SUSTANCIAS Y PREPARADOS QUÍMICOS, ¿CUÁL DE LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES ES CIERTA?

29a) Corresponde a la Administración garantizar que los fabricantes, importadores y usuarios intermedios sólo fabrican, comercializan o usan sustancias que no afectan negativamente a la salud humana o al medio ambiente.
29b) El ámbito de aplicación se centra exclusivamente en las sustancias utilizadas en procesos industriales.
29c) El ámbito de aplicación se extiende a todas las sustancias químicas, incluso a las de nuestra vida diaria.
29d) Tras la entrada en vigor del Reglamento REACH, la fabricación e importación de sustancias en cantidades anuales, iguales o superiores a media tonelada, deberá estar registrada.

30 ENTRE LAS INSTALACIONES DE MAYOR PROBABILIDAD DE PROLIFERACIÓN Y DISPERSIÓN DE LEGIONELLA SE ENCUENTRAN:

30a) Las fuentes ornamentales.
30b) Los sistemas de agua caliente sanitaria con acumulador y circuito de retorno.
30c) Los sistemas de agua contra incendios.
30d) Los humectadores.

31 SOBRE LA LEGIONELOSIS, ¿CUÁL DE LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES ES CIERTA?

31a) Se puede presentar en tres formas clínicas bien diferenciadas.
31b) La forma más grave de presentación es la fiebre Pontiac.
31c) En los países subdesarrollados es donde presenta una mayor incidencia.
31d) Puede presentarse en forma de brotes, o en casos aislados o esporádicos.

32 EN RELACIÓN AL RESERVORIO DE LA LEGIONELLA, ¿CUÁL DE LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES ES CIERTA?

32a) Las temperaturas entre 5º C y 20 ºC son las óptimas para su multiplicación.
32b) Necesita un estrecho intervalo de condiciones físico-químicas para sobrevivir.
32c) Soporta temperaturas superiores a los 70ºC.
32d) Las condiciones de estancamiento del agua y biofilms juegan un importante papel en su persistencia.

33 ¿CUÁL DE LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES ES CIERTA RESPECTO A LOS EFECTOS EN SALUD DE LAS RADIOFRECUENCIAS (RF) EMITIDAS POR LOS MÓVILES, ANTENAS Y SISTEMAS WIFI?

33a) Existe consenso entre la comunidad científica de que las RF producen cáncer de cerebro.
33b) Las RF han sido clasificadas por la Agencia Internacional para la Investigación del Cáncer (IARC) dentro del grupo 3 (que no pueden considerarse cancerígenos para los humanos).
33c) Son muy peligrosas para la salud.
33d) Con el conocimiento actual no se ha llegado a un consenso sobre los efectos para la salud de la exposición a RF.

29 SUBSTANTZIA ETA PRESTAKIN KIMIKOAK ERREGISTRATZE, EBALUATZE, BAIMENTZE ETA MUGATZEARI BURUZKO 1907/2006 (EE) ERREGELAMENDUARI DAGOKIONEZ, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA EGIA?

29a) Administrazioari dagokio bermatzea fabrikatzaileek, inportatzaileek eta tarteko erabiltzaileek giza osasunari edo ingurumenari kalte egiten ez dioten substantziak baino ez dituztela fabrikatzen, merkaturatzen edo erabiltzen.
29b) Industria-prozesuetan erabiltzen diren substantzietara bakarrik mugatzen da haren aplikazio-eremua.
29c) Substantzia kimiko guztietara hedatzen da haren aplikazio-eremua, gure eguneroko bizitzako substantzia kimikoak barne.
29d) Substantzia eta prestakin kimikoak erregistratzeko, ebaluatzeko, baimentzeko eta mugatzeko erregelamendua indarrean jarri denetik, urtean tona erdi substantzia edo gehiago fabrikatzen edo inportatzen badira, erregistratu egin beharko da hori.

30 ZER INSTALAZIOTAN DAGO LEGIONELLA UGARITU ETA BARREIATZEKO PROBABILITATERIK HANDIENA?

30a) Iturri apaingarrietan.
30b) Metagailua eta itzulera-zirkuitua duten etxeko ur beroko sistemetan.
30c) Suteen aurkako ur-sistemetan.
30d) Hezegailuetan.

31 LEGIONELLOSIARI DAGOKIONEZ, ZEIN BAIEZTAPEN DA EGIA?

31a) Ondo bereizitako hiru modu klinikotan azal daiteke.
31b) Pontiac sukarra da azaltzeko duen modurik larriena.
31c) Herrialde azpigaratuetan dauka intzidentziarik handiena.
31d) Agerraldi (brote) gisa azal daiteke, edo kasu isotatu edo noizbehinkako gisa.

32 LEGIONELLAREN ERRESERBORIOARI DAGOKIONEZ, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA EGIA?

32a) 5º C eta 20 ºC arteko tenperatuak ezin hobeak dira ugaltzeko.
32b) Baldintza fisiko-kimikoen tarte estua behar du bizirauteko.
32c) 70º C-tik gorako tenperaturak jasaten ditu.
32d) Uren gelditasunak eta biofilmek zeresan garrantzitsua dute haren iraupenean.

33 MUGIKORREK, ANTENEK ETA WIFI-SISTEMEK EMITITZEN DITUZTEN IRRATI-MAIZTASUNEK (IM) OSASUNEAN DAUKATEN ONDORIOEI DAGOKIENEZ, ZER BAIEZTAPEN DA EGIA?

33a) Zientzia-komunitatean adostasuna dago; IMek garuneko minbizia sortzen dute.
33b) Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak (IARC) 3. taldearen barruan sartu ditu IMak (horrek esan nahi du ezin direla gizakiontzako kantzerigenotzat jo).
33c) Oso arriskutsuak dira osasunarentzat.
33d) Gaur egun ditugun ezagutzekin ez dago adostasunik IMekiko esposizioak osasunean izan ditzakeen ondorioei buruz.

